



# Osasuna

## nekazaritza ekologikoan

### Osasuna nekazaritza ekologikoan

Laboreen osasuna nagusiki prebentzioan oinarritzen da nekazaritza ekologikoan. Baratzea ekosistema bat dela ulertzen dugu, hau da, baldintza jakin batzuetan elkarren arteko harremanetan sartzen diren bizitza-forma ezberdinak garatzen diren ekosistema bat da; hortaz, bizitza-forma horien dibertsitatea handitzea izanen dugu xede, ondoriozko sistema (baratzea) ahalik eta osasuntsuena izan dadin.

Ongarritze organiko egokiaren bidez, espezieen dibertsitatea handituz eta labore-lanak zainduz, ekosistema orekatu bat sortzea izanen dugu xede autoerregulaziorantz jo dezan. Horrek ez du esan nahi izurriak edo gaitzak agertu ez daitezkeenik. Baina, ongi elikatutako landareak, lurzoru bizia eta bertan fauna onuragarria izatea, hori guztia lagungarria izanen da sistema hain kaltebera ez izateko eta kalteei hobeki aurre egiteko.

### Helburuak

- Nekazaritza-ekosistema aberats eta konplexua diseinatzea, izurrien eta gaitzen autoerregulazioa sustatzeko.
- Kalte ekologikoak eta ekonomikoak maila "toleragarrietan" mantentzea.



## Baratzeko ekosistemaren maneia

- > Lurzoruaren emankortasuna egoki maneiatuko dugu, ongarrizte organikoaren bidez eta huraxe bizirik mantenduko duten beste praktika batzuk eginez.
- > Fauna lagungarria eta sistema osoaren osasuna (lurzorua eta laboreak) sustatuko dituen baratze bioanitz sortzea.
- > Barietate erresistenteak eta eremura egokituak erabiliko ditugu, ereintza garaiak eta labore-zikloak errespetatuta, eta beti landare eta hazi osasuntsuetatik abiatuta.
- > Landareen immunologia-sistema indartuko dugu, eta ez ditugu gehiegi ureztatuko eta ongarrituko.
- > Laboreak behar bezala txandakatuko ditugu, izurrien eta gaitzen zikloak hausten edo zailtzen laguntzeko.
- > Aireztapen ona ziurtatzen duten landaketa-markoak mantenduko ditugu.
- > Gaitzak jota dauden landareak ezabatuko ditugu, baina ez ditugu konpostera botako.
- > Tresnak garbi edukiko ditugu eta, beharrezkoa bada, desinfektatuko ditugu.
- > Tratamendurik egin behar bada, jatorri naturaleko produktuak erabiliko ditugu (begetalak, mineralak, biologikoak), kutsakorrek ez direnak eta fauna osagarria errespetatzen dutenak, nekazaritza ekologikoan baimendutakoak eta EBko ekoizpen ekologikoa arautzen duen 2018/848 (EB) Erregelamenduak araututakoak.

## Debekatua dago

- > Baimenduez bestelako fitosanitarioak erabiltzea: intsektizidak, fungizidak, akarizidak, tratamendu ez oso selektiboak edo batere selektiboak ez direnak, hau da, lurzoruan, uretan eta elikagaie-tan hondakinak uzten dituztenak.
- > Baimendutakoez bestelako ongarririk edo herbizidak erabiltzea, lurzoruko biza, fauna laguntzailea edo haien habitatak kaltetzen edo hiltzen baitituzte.



osasuna  
nekazaritza  
ekologikoan

CPAEN  
NNPEK  
EKOLOGIKOAN

